

...eta

kittó!

864 zkia.
2013-X-24



Lorez janzteko zain

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



C/ Torbio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com



LANTALDE PROFESIONAL

TELEFONO BIDEZKO ARRETA



ZERBITZU INTEGRALA

BIKAINA, IZEN-ABIZENEKIN

URGENTZIAK
24 ORDUTAN,
688 608 142

Urgentzietako Kostu Gehigarria.



ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara
zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara

ETXEZ-ETXEKO
ARRETA-ZERBITZUA

Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU!



ESKANTZA
BEREZIAK

Jarraitu urte osoan gure
sasoian-sasoiko
promozioak.

Abantaila ekonomiko
handiak eta bestelako
aukera odontologikoak.

Aprobetxatu!

AKREDITAZIOAK

Antonio Murillo Doktorea

Hezur Birsortuntza
eta Ehun Bigunen Maneiuko
Zuzendaria.

Lleidako Unibertsitatea eta Madril.

Periodontzia Koordinatzailea,
Odontologian Lizentziatua.

Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.

Inplantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.

Unibertsitate Institutuzietako Irakasle
gonbidatua

Madrilgo Unibertsitate Konplutensean,
Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan,
eta Sevilla, Bartzelona, Almeria, Lleida,
Malaga... Unibertsitateetan.

Ainhoa Zulueta Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.

Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian.
Leongo Unibertsitatea.

Aho Kirurgian Diplomatu.
Bartzelonako Unibertsitatea.

Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutesean.

Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso doktorea.



MUTUA ETA ASEGUROAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL,
CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA,
AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

...GALDETU!



IRAZABAL

clínica dental Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

“Korapilatsua da negozioaren eta lekukotasunaren arteko oreka topatzea. Fagor sortu zen lurraldeko garapena sustatzeko. Noski, garapen sozialerako ezinbestekoa da garapen ekonomikoa. Mondragonek azken urteetan egin duen nazioartekotze eredu kritikagarria izan daiteke, baina hemengoa suntsitu eta atzerrira joatea ez da irtenbidea”

(NAROA ELORTZA, IKERLARIA)

“Espainierak 200.000 titulu izan ditzake airean flotatzen, inolako kontrolik gabe piratatzuz jaitzi daitezkeenak. Doan daude eta lapurtu daitezke. Hiztegia bera da piratatuenetakoa; hala ere, egunero milioi kontsultatik gora izaten ditu”

(J. MANUEL BLECUA, RAE-KO ZUZENDARIA)

“Beharakada handia izan du dantza askatuak Bizkaian. Egun lauzpabost bikote gabiltza eta txapelketak lehen baino gutxiago daude. Euskal Herriko txapelketan ere, bederatzik bikoteetatik Bizkaiko bakarrak izan gara, eta 36 urtean bigarrenagoz nagusitu da Bizkaiko bikote bat”

(HAIZEA ORMAETXEA, DANTZARIA)

“Gipuzkoako herritarrek energia zerbitzuetarako diru sarreren %10 ematen dute eta hori gehiegizko gastua da. Batez beste, Gipuzkoako etxebizitza bakoitzak 1.300 euro erabiltzen ditu urtean energia gastuetan”

(POBREA ENERGETIKOARI BURUZKO TXOSTENA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JOKO BERO.- Tartearen diru asko dagoen jokoa. “Joko berua harek darabixana”.

JOKO ESTU.- Egoera zaila, larria, estuasuna. “Joko estua haren jornalakin umiak haztia”.

JOKUA EUKI.- Kirol batean jokaldi onak egiteko gaitasuna. “Pelotari horrek joko ederra dauka”.

Karta-jokoan karta onak euki. “Heuk urteik, ez juat ba nik jokorik”.

JOKUAN EIÑ.- Kartetan egin, dirua jokatuz. “Jokuan egitten eben Ondamendin goizaldera arte”.

eskutitzak

AZKEN OSTIRALA / URRIAK 25

Euskal Preso eta Iheslari Politikoen eskubideen eguna. Nahiz eta betikoek kriminalizatzen saiatzen diren, Herriraren aurkako erasoak kasu, Euskal Herrian elkartasunak ez du inoiz etenik izan, eta ez du izango aurrerantzean ere.

Gainera orain une berezia bizi dugu: Estrasburgok bere epaia emana du, Ines del Rio aske dago eta Parrot doktrina ezarria dutenak laster batean kalean espero ditugun honetan, denon artean saiatu beharra daukagu une berezi hau Estatu espainiarra eta fran-

tziarraren espetze politikaren aldaketarako giltzari bihurtu dadin.

Horregatik, eibartar guztiei dei egiten diegu, Tantz Tanta bildu eta elkartasunaren itsasoa osatu dezagun, olatu erraldoi batek gobernuen inobilismoa eta mendeku gosea aurretik eraman ditzan. Eskaini diezaiogun hilero orduerditxo bat Preso eta Iheslarien eskubideei. Azken Ostirala, urriaren 25ean, 19.30etan, Kontzentrazioa Untzagan. **Giza Eskubideak, Irtenbidea, Pakea.**

EIBAR TANTAZ TANTA

DATORREN ASTEAN EZ DA ALERIK EGONGO

Datorren asteko barixakuan Domusantu eguna dela-eta, ez dugu alerik kaleratuko. Hurrengo zerbaki azaroaren 8an jasoko duzue zuen buzoietan.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZTARILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERAK:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Mateo Guilabert omenduko dabe Krabeliñen

Arrateko Krabelin jatetxiak hamargarren urtez jarraixan antolatu dittuan maridaje jardunaldixetan Mateo Guilabert kazetari eibartarrari omenaldixa egingo detsa San Andres bezperako afarixan, Udalak grabadore-bolia emonda. Azaruaren 8xan hasitta barixakue-ro (azaruaren 15 eta 22xan) emongo dittue afari berezixak, ehizarekin osatutako menua eta ardandegi ezagunetako ar-

dauak alkartuta. Afari guztietara enologia gonbidatu dabe, ardauden gaiñeko azalpenak emoteko. San Andres bezperako afarixa, barriz, berezixa izango da: omenaldixa egittiarekin batera, jaixaren bezperia izanda ez dabe ardandegirik gonbidatuko, baiña maridajietako ardauek eskinduko dittue eta beste afarixak baiño zezzer merkiagua izango da. Afarixetarako izen-emotiak 943-



Aurtengo Amañako jaixetan jasotako errekonozimenduan, Mateo Guilabert hunkittuta agertu zan. SILBIA HERNANDEZ

202727 telefono zenbakira deittuta edo contacto@hotel-krabelin.com helbidera idatzitta egin leikez eta, azken ur-

tiotan egindakuaren bidetik, aurten be afaltzera doiazenezandako autobusa ipiñiko dabe Arratera igo eta jaisteko.



Enpresen arteko hartuemonak sendotzen

Debabarrenako ekintzaillien arteko lankidetza eta sustapena helburu dittuan Ekingune alkartiak elkarEKIN izeneko jardunaldi barrixa antolatu dau azaruaren 6rako. Aisialdixa eta negoziuak batuta, eta eskualdeko enpresa eta profesionalen arteko kontaktu zerrendia osatzeko asmuari jarraituta, Erdi Bana soziedadian (Urkizu, 1-6.esk) topaketia egingo da, 19.00etatik 21.00etara. Bertan parte hartziagaittik ez da ezer pagau bihar, baiña juateko asmua dakanak aurretik izena emon biharko dau ekingune@ekingune.com helbidera idatzitta edo 943 208 420 telefono zenbakira deittuta. Antolatzaillien berbetan, "biharretik kanpora be beste gauza batzuk daguazenez, sinergixak biltzen segitzeko gunia eskinduko da jardunaldixan, pintxo potearrekin gozaten dogun bittartian".

Pobreziaren kontrako ekimenak

Aurreko asteko eguenian, Pobreziaren aurkako Egunian, Eibarko Elkarkidetza Mahaia antolatuta Aldatze eta La Salle ikastetxietako ikasle eta irakasliak, Garaguneko boluntariuekin batera Untzagan bat egiñ eben, pobreziarekin amaitzia aldarrikatzeko. Eurekin batera manifestuarekin bat egin daben Eibarko Fiare Taldiak eta Kaleratzeak Stop Desahucios plataformiak kanpaiñari babesa emon zetsen. Egunaren harira ezagutzera emondako datuak larrixak dira: "Europar herritarren %24'2 pobre izateko arriskuan egotiak argi erakusten dau zezzer txarto daguala. Euskadin 2012. urtian 435.000 (%19,9) lagun pobreziari bizi izan dira eta Eibarren 320 lagunek (140 famelixak) elikagai bankuaren laguntasuna jaso dabe".



Eibarko Elkakidetza Mahaia antolatua, Aldatzeko eta La Salleko ikasle eta irakasliak hartu zeben parte Untzagako ekitaldixan. SILBIA H.



Geltoki Market arrakastatsua

Aurreko zapatuan Estaziñuan egindako Geltoki Market bigarren eskuko azokiak atzera be jendetza batu eban goiz osuan. Zona 10 alkartekuak antolatutako azokaren inguruan, betiko lez, hainbat jarduera osagarri egin ziran, bestiak beste umiendako kalabaza taillarra eta zozketa berezixak.

Gure Balioak sarixa Carmelo Urdangarinendako

Atzo arratsaldian Deban banatu eban Gure Balioak sarixaren laugarren ediziñuan Carmelo Urdangarin Altuna debarrak jaso eban errekonozimendua, "enpresa, kultura zein gizarte esparruetan gaztetatik erakutsi daben lankidetzarako gaitasuna" nabarmenduta. Sarixa emoteko ekitaldixa atzo arratsaldian izan zan eta bertan parte hartu eban, bestiak beste, Juan Maria Aburto Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailburuak eta Ricardo Barkala Enplegu eta Lan sailburuordiak. Epaimahaixak azpimarratu dabenez, "Urdangarin beti agertu da alkarlanerako gertu, beti itzalian,



baiña parte hartu daben ekimen guztietan bere parte-hartzia erabakigarria izan da". Sarixa emotiarekin batera, ekitaldixan Gure Balioak proiektua Debegesarekin batera gidatzen daben Herritarren Foroko kidiak iaz hil zan Txema Cornago eibartarra izan eban goguan.

Autobus zerbitzua hobetu nahi?

1. FASEA
Herritarren Foroaren bidez

2. FASEA
Eztabairak, iradurak

3. FASEA
Gizarte erantzunaren bidez

4. FASEA
Gizarte erantzunaren bidez

herritarrekin
Euskararen Elkartea

2013 Gipuzkoako Foru Aldundia - Titulo: 943 112 420 - Lege-informazioa

Gipuzkoako Foru Aldundixak herrixen arteko autobus zerbitzua hobetu nahi dau eta, horretarako, herritarren iritzixak eta ekarpena batzeko prozesua hasi dau, herririk herri billerak eginda. Eibarren datorren asteko martitzenian (urrixaren 29xan) egingo dabe batzar irekixa, 18.30xetan Portalean. Billeretatik kanpora be badagoz ekarpenak egitteko beste bide batzuk: www.garraioa-hobetzen.net helbidian sartuta, prozesuaren informaziño osuarekin batera, galdetegi simple bateri erantzunda horretarako aukeria emoten dabe.

autuan

KINTUEN BAZKARIXAK

1944an jaixotakuak azaruaren 9xan batuko dira alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 60 euro sartu biharko dittu Laboraleko 3035 0078 81 0781052201 zenbakixan. 1937xan jaixotakuak azaruaren 15ian batuko dira eta 55 euro sartu biharko dittue 2095 5035 00 91 13208258 kontuan. 1933an jaixotakuak, barriz, azaruaren 16xan egingo dabe bazkarixa eta Juan nahi dabenak 60 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 2095 5035 00 91 13225816 kontuan. Kasu guztietan izena eta abizenak garbi azaldu biharko dira dirua sartzian.

ODOL EMAILLIAK

Gipuzkoako Odol Emailliak Deba arroko odol-emotaillieri insigniak eta diplomak banatzeko ekitaldixa egingo dabe urriaren 27xan. Oinguan Eibarren egingo dabe ekitaldixa, Unzaga Plaza hotelian: 13.15etan omenduerei harrera eta agurra egingo detse, 13.30xetan domiña eta bestelakuak banatzen hasiko dira eta 14.30xetan bazkarixa hasiko da.

Gabonetako OTARRA

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko balioa duen Otarra

Prezioa: 1€
Zbk: Zazketa 2013ko abenduaren 18an egingo da

Euskararen Elkartea
Inkribatze 15 egunetan aurreratu ez bada, erabakitsi erantsa zate ulatu.

SALMENTA LEKUAK

- Arriaundi
- Bolintxo
- Depor taberna
- Ego Gain taberna
- El Corte Ingles
- ...eta kitto!
- Echetto-Urkizu
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Kultu taberna
- La Golosina
- Mugika harategia
- Ogi Berri-Urkizu
- Otegui harategia
- Untzaga prentsa
- Valenciaga

ZAPATUAN

Torbio Etxebarriako
El Corte Ingles
parean **12.00etatik**
13.30etara



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**
- Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi Taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

asteko 43 datua

farola barri ipiñi dittue bariantiaren pasialekutik Azittaiñera bittartian. Konsumo bajuko LED sistemía darabilte; farola bakoitxak 43 W eta 20 LED dakaz. 58.791 euro gastau dittue farola barrixetan.

EibART udazken azokia zapatuan

Hurrengo zapatuan, hillan 26xan, Eibart udazken azokia egingo dabe Untzagan 11.00etatik 21.00etara. Azokan artisautzako 15 bat postu ipiñiko dittue, produktuen eskintza zabalarekin. Bestiak beste zeramika, bitxixak, oihalak, serigrafixia, kopiñak, egurra, oiñetakuak, arropia, binilo-diskuak, altzarixak, gozogintza eta txakurren adopziñua eskintzeko asmua dake. Gaiñera, egunian zihar hainbat jarduerarekin jantziko dabe azokia: 13.00ean "Historia del cacao" umiendako antzezlan eskinduko dabe, 16.30xetatik 18.00etara umiendako eskulan taillarrak egongo dira martxan, 18.00etan gimnasia erritmika taillarra eta era-krustaldixa egingo dittue eta 19.00etan Josu Pastorek kontzertua emongo dau. Bestalde, egun osuan zihar azokia musikarekin girotuko dabe.



Shopping Night ikusgarrixa

Aurreko astian, barixaku gabian, Eibar Merkataritza Gune Irekixak lehelengoz antolatu eban Shopping Night dalakuarekin pozik geratu zan jendia eta, gabian erosketak egittera animau ziranak, normalian ikusten ez dittuan hainbatekin topo egiñ eben: bestiak beste eskaparatian benetako manixak ikusi ziran, tabernetan kanape berezixak emon zittuen, zozketa eta promoziño berezixak egon ziran eta, gaiñera, kaliak girotzen Lekeittioko Deabruak taldiak jardun eban, ikusmiñ haundixa eragin eban piroteknia ikuskizuna eskintzen.



ELAren mobilizaziño astia

Astelehenaz geroztik eta bixar arte ELA sindikatuak mobilizaziño astia egitten dihardu. Horren harira, eta zerbitzu publikuen alorrian, martitzenian alkarrataratzia egiñ eben Untzagan "Zerbitzu publikoen defentsan!" goiburuari jarraituta. Mendaroko ospittalian, Arrasatekuan eta Bergarako anbulategixan be konzentraziñuak egin dittue, "osasungintzan zein sektore publikoko gaiñerako zerbitzuetan jasaten dihardugun murrizketen kontra protesta egitteko". Bestalde, Osakidetzako garbitzailiak greban dagoz martitzenaz geroztik eta gaur arte.



Mobilizaziñuak murrizketen kontrakuak dira. LEIRE ITURBE

Gabonetako otarrarendako txartelak

Aurreko astian egindakuaren bidetik, datozen zapatu bixetan be 12.00xetatik 13.30xetara ...eta kitto! Euskara Elkarte-ko bihargiñak Torbio Etxebarria kaleko El Corte Ingles parian egongo dira, 2.000 euroko balixua dakan Gabonetako otarraren zozketarako txartelak euro batian saltzen. Horrekin batera, ohiko tokixetan

be salgai ipiñi dittue: Isasi okindegixan, Ogi Berri-Urkizun, Bolintxon, Untzaga prentsan, Etxeto-Urkizun, Kultun, Deporen, Ego Gain tabernan, Valenciagan, Mugika harategixan, Otegui harategixan, Izadi loradendan... Eta El Corte Inglesian eta ...eta kitto!-ren buleguan (Urki- zu, 11 solairuarteran) be erosi leikez.



Ainhoa Baglietto abokatu eibartarrak, Amaia Izko, Didier Rouget eta Olivier Peter-ekin batera osatu du Parot doktrinaren aurka Estrasburgon helegitea jarri dutenen taldea. Astelehenean Europako Giza Eskubideen Auzitegiak arrazoia eman zien, Espainiako Gobernuari esanez azken bost urteetan Ines Del Rio "legez kanpo" eduki dutela preso eta lehenbailean askatzeko. Martitzen goizean elkarrizketatu genuen Baglietto eta arratsalde berean askatu zuten Ines Del Rio eta, abokatuak dioenez, bide beretik jo beharko dute beste 59 presorekin. Horrela amaituko da 197/2006 doktrinak hasieratik ekarri duen ziurgabetasuna.

AINHOA BAGLIETTO (abokatu)

"Espetxe politikak ezin ditu giza eskubideak urratu"

- Atzoko berria espero zenuena izan da? Horrelako aldearekin izango zela ere aurreikusten zenuten?

Orokorrean ikusita, argi zegoen besterik ezin zutela onartu. Irakurketa legalki eginenez, inolako zalantzarik ez zegoen ebazpena zein izan behar zen. Aurretik ere, estatuan bertan, hiru magistratuk neurriarekin kritiko izan ziren, nahiz-eta gutxiengoa izan. Beldur bakarria Espainiak erabiliko zukeen presioan zegoen, aurretik ere eginak baititu horrelako sententzia politikoak. Inoiz ez dakizu halakoak noraino irits daitezkeen.

- Erabakia zelan hartu dute estatuko agintariak? Komunikabideek izandako jarrera egokia ikusi duzue?

Orokorrean, agindutakoa errekonozidu besterik ez dute egin. Doktrina ezarri da eta sententziaren indarra onartu behar izan dute. Justizia eta Barne ministroen agerraldian Parot legearen amaiera dela argi geratu zen, batez ere oinarritzko lege baten aurka jo dutelako. Komunikabideen kasuan, askotan orokortasunekin jokatu du hainbatek, gehiegi sakondu barik; hor denetarik dago eta trataera ere halakoa da.

- Aurrerantzean Estrasburgotik etorritako erabaki honek zer eragin izan dezake? Politika penitentiarioa aldatzeraino?

Estatua, halako neurriak hartzen ditueanean, konsziente eta jakitun da giza esku-

bideen gainetik diharduela. Behin eta berriro hartzen duen bidea da, estatuaren kultura politikoan barneratuta dago, berdin dio giza eskubideak zapaltzen diren ala ez. Europatik halakoak helduta ere, 'guk geureari eutsiko diote' diote, hau da, salbuespenezko neurriak hartzen. Europak hurrengoan ere kontra egin arte.

- Kartzeletako egoerari dagokionez, agintariak eskuzabalago jokatzeko aukerarik ikusten duzue?

Egia esan, ezin gara egon euren borondatearen menpe. Abokatuon lanetik aparte, herritarren bultzadak behartuko ditu gauzak aldatzera. Doktrinaren irakurketa estuan ezin gara geratu, irakurketa zabalagoa egin behar da: horrek dio giza eskubideak errespetatu behar direla, eta hortik ere jo behar da politika penitentiarioan. Hori ulertu ez badute nahi...

- Zeintzuk dira, Estrasburgokoaren ondoren, eman behar dituzuen lehenengo urratsak? Emanak dituzue dagoeneko?

Bai, berehala jarri genuen martxan Ines Del Rio kartzelatik ateratzeko askatasun-lizentziaren eskaera, eta gauza bera Erresuma Batuan dagoen Troitiñoren kasuan. Jarraian gauza bera egingo dugu ordezkatzan ditugun beste guztiekin.

- Agindutakoa betetzeko badago eperik? Trabak izanez gero, zenbat luzatu dezake orain hasten den prozesua?

Esperientziak dio, nahiz-eta eskaerak indibidualak izan, erabakiak plenoka hartuko direla. Epeei dagokienez, jendeak jakin behar du horrelakoetan, askatasuna tartetan dagoenean, legeak agindutakoaren betetzea berehalakoa izan behar dela. Gure aldetik, aste honetan bertan joango gara askatasun-lizentzia eskatzen eta, jakina, Auzitegiak aintzat hartu beharko ditu.

- Epaiak, dena dela, ez dio tinterpretazioari tarterik lagatzen, ezta?

Europak eman duen epaia orokorra da eta ez dio bakarrik erreferentzia egiten Ines Del Riori. Sententziak esaten duena da pertsona bat kondenatua izan bada 1973ko kodearen arabera, ordutik eta 2006ra arte Espainiako epaileek ez dutela kondena horren interpretazioa egin orain egiten den moduan, eta hori ezin dela inoiz ere aplikatu atzera eraginez.

- Azken urteotako neurriak, dena dela, oso murriztaileak izan dira presoentzat, ezta?

Abantaila penitentiarioak eta halakoak kentzeraino... baina horretarako legeak aldatu dituzte. Baina Europak zeozer argia esan badio Espainiako Estatuari izan da presoan kontrako edozein salbuespen neurri berezi bertan behera laga behar duela, ezin delako aplikatu giza eskubideak urratzen dituen espetxe politika bat. Denak ez duelako balio. Hori esan diete Europatik Espainiako agintariei.

Gurian azaruaren 1ian gogoratzen dittugu hildakuak, Domusantu egunian. Urte osuan ixa egunero hutsik egoten dan kanposantuan jendia atzera eta aurrera ikusten hasiko dira eta, egun gitxi barru, aste honetan billuzik topau dittugun hillobixak kolorez gaiñezka ikusiko dittugu, hildakuen famelixakuak eruango dittuen lorekin apainduta. Heriotzarekin lotutakuak saihesten dittuan gure kulturaren, kanposantura bisitan juateko eguna kalendarixuan kolore gorrixan markauta dakagu.

Hildakuak goguan eukitzeko egunaren zain

Aste honetan Urkiko kanposantua trankil-trankil eta hutsik topau dogu eta bertako zaintzaille eta bihargiñak urte osuan hola egoten dala kontau desku, "beti be salbuespenen bat edo beste egoten dan arren". Urrixaz geroztik udazken-neguko ordutegixa dago indarrian kanposantuan: 10.00-etatik 13.30xetara zabaltzen dabe goizez eta arratsaldez, barriz, 14.30xetatik 18.00etara. Halanda be, datozen egunetan jende gehixago gerturatuko dala aurreikusitta eta jendiari ahalik eta erraztasun gehixen

emotiarren, datorren astian normalian baiño ordutegi zabalagua eskinduko dabe, 08.00etatik 20.00etara eguardixan itxi barik, atiak hamabi ordu jarraixan zabaldua.

Kanposantuan 20 urte gehixenez

Oin dala gitxi, kanposantuarren arduria dakan Zerbitzu saillak zerbitzua arautzeko protokolua ezarri dau, bestiak beste gorpuzkiñak lurperatzeko moduetan eta ohitturet看 kanbixuak egon dirala ikusi dabelako eta hórri egokitzeko ahalegiñetan.



Inzineraziñuak egiñ ahal izateko arau batzuk betetzen dittuen laba berezixak euki bihar dira.



Eibarko udal hillerrixak eskintzen dittuan zerbitzuen artian hónetxek dira ohikuenak: gorpuzkiñak erre eta 10 urtian errautsendako kanposantuaren parterik altuenian horretarako bereziki egin dittuen nitxuan eukitzia; gorpuzkiñak (errautstakuak be) Eibarko kanposantuan edo udal hillerrixan famelixiak dakan beste nunbaittera (nitxo, panteoi edo lurrera) eruatia; eta gorpuzkiñak erre eta Eibarko kanposantutik beste nunbaittera eruatia.

Tramitiak erraztiarren, udalaren web orrixan (www.eibar.net) hórren gaiñeko informaziño zabalaga herrittar guztiendako eskuragarri ipiñi dabe eta tramite batzuk internet bidez egitteko aukeria be emoten dabe. Bestela, zerbitzuen eskaeria zuzenian egitteko, udaletxera jua bihar da, Pegora Herrittarren Zerbitzurako Bulegora eta kasu bakotxian eskatzen daben dokumentaziñua bertan presentatu (eskaera orrixak internetetik deskargau eta beteta eruan leikez).

Normalian nitxuak hamar urterako lagatzen dira beti, baiña denpora hori amaittuta atzera



be eskaeria egiñ eta beste hamar urte gehixago euki leikez gorpuzkiñak kanposantuan. Dana dala, nitxuen "luzapena" bakarrik behiñ egin leike (hau da, gehixen jota 20 urtetan gordeko dittue gorpuzkiñak).

Tanatorixuak

Heriotza zuzenian kanposantuarekin lotzeko joeria dakagu, baiña hildakuen gorpuzkiñak kanposantura aillegau aurretik derrigorrez emon biharreko beste pauso batzuk dagoz. Hórren artian hildakuarren senide eta lagunak azken agurra egitteko momentua dago. Oin dala urte batzuk ixa beti etxian

bertan egitten jakuen harrera holakueri, baiña gero eta gehixagok erabiltzen dabe funerarixak holakuetarako eskintzen dittuen zerbitzuak.

Iazko urrixan zabaldu eben lehelengo tanatorixo zerbitzua Eibarren, Otaola hiribidian FunEuskadikuak. Ordura arte eibartarrak Elgoibarko tanatorixo bixak erabiltzia beste aukerarik ez zeken. Eibarko tanatorixuak 45 metro karratuko areto bi dakaz, bertan belatorixua egitteko, eta horrekin batera hildakuendako kamaria eta 50 lagun hartzeko moduko kapilla be badagoz, baten batek bertan mezia egin nahi badau eskaeriari erantzuteko. Berez 09.00etatik 21.00etara zabalitzen dabe, baiña hildakuaren famelixiak erabagitzen dau belatorixuaren ordutegixa. Praktikan ikusi dabenez, kasu gehixenetan 11.00etatik 13.00era eta 17.00etatik 19.00etara zabalteko eskatzen dabe.

Gero eta inzineraziño gehixago

Mugika funerarixakuak diñenez, "gero eta jende gehixagok eskatzen dau gorpua erraustia. Sasoi batian ixa kasu guztietan betiko lurperatzia aukeratzen eben, baiña gaur

**EIBARKO
KANPOSANTUKO
DATUAK**

**2008xan
8.262 nitxo
eguzen**

**2010ian
4.407 nitxo,
hórretatik 416
errautsekin**

**Nitxo guztiak
10 urterako
lagatzen dira
Gehixen jota
20 urtian
gordetzen dittue,
beste 10 urterako
horretarako
eskaeria
aurkeztuta**

egunian kremaziño edo inzineraziña normaltasunez zabaldu da eta gero eta gehixagok eskatzen dabe hildakua erretzia". Aldaketia eragin dabene faktore bi aittatzen dittue funerarixako arduradunak: "Batetik, batzueri gorpua erretziak lurperatzia baiño min gitxiago



Errausketa kopuruak gora egitten diharduala ikusitta, hórretxek gordetzeko nitxo berezixak preparau dittue kanposantuan.

emoten detse, ez jakue begittantzen horren mingarrixa. Horrekin batera, inzineraziña ehorzketa gastuak murrizten dittu, lurperatzia baiño merkiagua da-eta".

Inzineraziñuen eskarixak gora egittiarekin batera, hórri erantzuteko zerbitzuak be hedatzen jua dira eta Mugika funerarixak inzineraziña eskatzen dittuanak egitteko krematorixua daka Eibarren bertan: "Inzineraziña krematorixu batian egin bihar dira derrigorez eta, gaiñera, arau batzuk betetzia ezinbestekua da: gorpuk erretzeko 870-980 °C-ko tenperatura hartzeko ahalme-

na dakan laba bat edo gehixago eukitzia eskatzen dabe eta, horrekin batera, gorpua erre eta gero errautsak jaso eta bestelakuetarako egokixak diran beste tresna batzuk be euki bihar dittugu. Inzineraziña hasi baiño lehen gorpua nunbaiten (kartoizko kaja batian edo egurrezko hil-kutxa batian) sartu bihar da. Kremaziña amaitsu eta gero, errautsak jaso eta tamaiña eta itxura diferentia daken urna edo kutxetan gorde bihar dira. Hórretxek hildakuaren famelixakuak aukeratzen dittue, bakotxaren gusto eta presupuestuaren arabera".

GIDA PRESTATZEN DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

eibar GIDA 2014 DEITU...

943 20 67 76
943 20 09 18

f

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27
Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
© 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugaleta · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

100 ANOS
BUREAU VERITAS
Certificado
Fn. Tanatorios y Crematorios

Dj saioak, Soul Room eta kontzertuak gauak girotzeko

Datozen egunetan ez dugu zuzeneko musikarekin gozatzeko aukerarik faltan izango, gaur gauean bertan hasita. Karrika tabernan Moby Dick-ek kontzertua emango du 22.00etatik aurrera. Eta tabernaren azken hilabetea izango dena agurtzeko antolatu duten egitarauari jarraituta, zapatuan 23.00etatik aurrera Kogollo Party Krew hartuko du tabernak. Urriaren 31an 19.00etan azken pintxopotea eskainiko dute eta azaroaren 2an (zapatua) 23.00etatik aurrera hasiko den Azken Guda Dantzarekin agurtuko dira Karrikakoak.

Bestalde, barixaku gauerditik aurrera Akats tabernan Malder taldeak kontzertua emango du eta, jarraian, Special Classics Session izenburuari jarraituta Dj Mary, Dj Manu 16v, Dj Iñigo Txampaña eta

Dj TxOnA egongo dira musika eskaintzen.

Funk Off! elkarteak antolatuta, zapatu gauean The Soul Room hartuko du Koskor tabernak. Zazpi hilabetez atsedean hartu eta gero, gauerditik aurrera Dj Mister (Black Wax, Durango), B_ato (Bar akaldio, Eibar) eta Gorku (Funk Off!, Eibar) joango den jende guztia dantzan ipintzeko moduko doinuak eskaintzen egongo dira eta, aurreratu dutenez, "zapatu gauean Koskor tabernaren behoko pisuan geratu barik dantzan jarduteko eta izerdia botatzeko moduko house-funky musika jaun eta jabe izango da, bero egingo du!".

Durangotik datorren Dj Mister "binilozale amorratua" dela diote jaiaren antolatzaileek. Horrekin batera Durangoko Txoria Nuen Maite tabernan hi-



Koskor tabernak zapatu gauerdian ekingo dio Soul Room jaiari.

lero egiten diren Black Wax jaietan ez du kale egiten eta musika arloan ibilbide benetan luzea dauka. B_ato aurretik egin diren Funk Off! jai bietan egon zenez, "ez du aurkezpenik behar. Aurreko bietan gurekin egon zen eta oraingoan ezin zizun hutsik egin, nahiz eta zapatu baterako harrapatzea benetan zaila izan, agenda konpro-

misoz gainezka dauka-eta! Eta barixakuetan Eibar eta inguruko DJ-ak gonbidatuta Fun On Fridays jai bikainak antolatzen dihardu". Eta beste erritmo batzuk nahiago izanez gero, Ez Dok tabernan Gabba Gabba Hey, Ramones ezagunaren abestiak eskaintzen dituen taldeak zuzenean jardungo du gauerditik aurrera.



Urriaren 10ean EHU-ko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako 47 tituludun berriei (33 Mekanika espezialitatean eta 14 Industria Elektronikan) diplomak banatu zizkieten, San Andres aretoak hartu zuen ekitaldian. Jose Ignazio San Martin zuzendariak eman zuen hitzaldian, besteak beste, industria ingeniari teknikoaren garrantzia azpimarratu zuen, "ogibideak duen konpromiso etikoa eta gizarteari zerbitzua emateko konpromisoa" bereziki nabarmenduta. Diplomarekin batera oroigarri bana jaso zuten ikasleek.

Gazteak ere Harixa Emoten

Urrian ekin zitzaion Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubari, Kirmen Uribek "Mussche" nobelari buruz eskainitako saioarekin. ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Juan San Martin liburutegiak elkarlanean antolatutako euskerazko irakurketa klubaren hurrengo saioa azaroaren 4an (martitzena) izango da: Aitziber Etxeberria zarauztarrak "Tango urdina" bere lehen eleberria komentatuko du eta asmoa irakurle gazteak erakartzea da. Hilean behin, astelehenetan egingo den irakurketa klubean parte hartzea doan da eta izena emateko liburutegira jo daiteke. Urtea amaitu aurretik, abenduaren 10ean Arantxa Urretabizkaia "3 Mariak" liburuaren ingurukoak azalduko ditu.



MULTIABENTURA
UBALEKUAK
NAFAR PIRINIOAN

URRATSAK
udalekuak

www.urratsak.com • info@urratsak.com

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

EZTEIEN

gehigarria



josu torrealday

30. zenbakia – 2013ko UDAZKENeko gehigarria –

PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU eta Belen ULAZIA

Telefonoa. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 28 72

publizitatea@etakitto.com

Eztei eguna aukeratu bezain pronto, Eibar inguruan bazkari edo afaria non egingo dugun erabakitzea presazko kontua izaten da. Gustoko jantzia izanez gero, ziur asko, bisitatuko dugun lehenengo lekua izango da, behin baino gehiagotan mugitu baita eztei eguna jantziaren lekua dagoen ala ez jakin eta gero.

Behin jantzia erabakita dugunean, egun horretan gure gonbidatuei eskainiko dieguna erabakitzeko unea izango da eta horretarako hainbat gauza edukiko dugu kontuan:

- Jantziek aurrez diseinatutako hainbat menu izaten dituzte, eta horren arabera izaten dira prezioak. Hala ere, aldatetako edo menu propioa egiteko aukera ere izaten dute jantzi askok.
- Menua aukeratzeko orduan kontuan izango dugu hasieran mokadutxo edo 'coctail'-a izango dugun. Mokadutxoa oso interesgarria izaten da ezkonberriek argazkiak orduan egiteko asmoa izanez gero, eta jendeak patxadaz, berbetan itxaron dezan.
- Sasoian sasoiko produktuekin diseinatutako menua baldin bada hobeto; alde batetik, produktuak egoera ezin hobean izango ditugu eta bestalde prezioa ere onena izango da.
- Kontuan izan egun horretan jende asko batuko duzula. Ez pentsatu zuri zer gustatzen zaizun bakarrik, jendeak orokorrean zer izaten duen gustoko kontuan izan behar da.



josu torrealday

- Azken aldian modan jarri da gaueko mokadutxoa. Fruta, pintxo eta txokolateen unea izaten da. Dantza amaitu eta gutxira eskaintzen da, tente edo jarrita jateko moduko 'lunch' moduko bat izaten da; gaueko jai hasteko modu ezinhoba. Jatekoak Euskal Herrian duen ga-

rantzia azpimarratzen badugu ez dugu gauza berririk asmatu. Eztei egun osteko berbaldietan ere indar eta pisu berezia izaten du egun horretan jan eta edandakoak, beraz, benetan aukeraketa garrantzitsua izaten da. Hori bai, jantziaren bertan lagunduko dizute guztia antolatzen.

F. PASCUAL Arane, 6
Telf. 943 20 61 64
Faxa. 943 20 85 43
20600 EIBAR



VIRGINIA PASCUAL
Zubiaurre, 36 (behea)
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28
www.cocinaspascual.com
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK
BARNERAKO

ROCA CALBETON, 16
-EIBAR-

TEL. 943 20 80 06



**Ezkontza egunerako guztia...
...ZURE ESKU!**



laguinda
arropak eta osagarriak



Bidebarrieta, 18
943 20 84 41

Ezkontzeko prest!

Kalitatea sukaldean
Jon Odriozola chef-a

Ordutegi zabala
berandura arte



Arreta pertsonalizatua
Zure egun berezia



Tel. 943 202 727 Faxa. 943 208 991
Arrate auzoa -EIBAR-



**HOTELA
JATETXEA**

conecta@hotelkrabelin.com www.hotelkrabelin.com



Loiola auzoa, 24 AZPEITIA
JATETXEA

Telefona: 943 81 56 08
info@kiruri.com

Faxa: 943 15 03 62
www.kiruri.com

"Tiro Pitxon Jatetxea" ARRATE



Terraza ederra
bista paregabeekin

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta



Ezkontzak
Jaunartzeak
Bataioak

...
943 20 88 59

www.kantabriajartetxea.com Arrate Gaina, 4
kantabria@kantabriajartetxea.com 279 Postakutxa
20600 EIBAR
Tel. 943 121 262



EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK



RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

Egipton ere erabiltzen ei zuen emaztegaiak lore sorta, orduan izpiritu txarrak aldentzeko asmoarekin, usain handikoak izaten ziren. Erdi Aroan lore sortek indarra hartu zuten berriro eta tamaina oso handikoak izaten ziren, lurrera artekoak. Azken urtean kalitatezko lore sortak, oso naturalak eta xumeak izaten dira. Berdea nagusi, ostu anitzeko fondoaren gainean, kolore bakarrekoreak erabiltzea da ohikoena. Koloreari dagokionez, zuria, arrosa eta malba dira nagusi.

Lore sorta txikiak, baina oso ondo egindakoak, detaile modernoren bat txertatuta, denboraz aukeratutako zerbitu da ezteie egunean. Denborarekin loradendara joan eta dauden aukera guztiak berri emango digute. Kontuan izan gainera, gaur egun ezteie egunean erabiltzeko ditugun lore guztiak familia berekoak izatea oso ohikoa dela. Emaztegaiak duen detaileren bat bazkaltzeko mahaietan izatea be modan jarri da. Lo-



josu torrealday

radendak dituzten katalogoak anitzak dira, soineko guztiendako aproposak, gainera lore sortak egiteko teknikak asko aurreratu dira eta forma guztietakoak egiteko ohitura dago. Hori dela eta, soi-

nekoak duen garrantzia ikusita, emaztegaiak soinekoa aukeratuta duenean, loradendara bisita egitea gomendatzen da, dauden aukera guztiak zehatz aztertzeke astia izango baitugu.

San Juan, 1
943 20 33 29



fasprint
Inprimategia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

Bidebarrieta, 1

Laumar

Tel. 943 20 16 26

Isasi, 16

943 20 88 47
688 67 89 34

LORA DENDA

Larrea

DENDA BERRIA T. ETXEBARRIAKO EL CORTE INGLESEAN

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

San Andres gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)

ANTXON DEGUSTAZIOA

T. ETXEBARRIA, 13 -
Tel. 943 20 63 22
943 20 05 47



CASTAÑO
PELUQUEROS

943 207047 contacto@castanopeluqueros.es
c/ Fermin Calbeton, 1 www.castanopeluqueros.es

BILATUIGUZU GURE SARE SOZIALETAN

facebook.com/castanopeluqueros
 twitter.com/castanopelu

BOUTIQUE
z boga
ESTILISTAK

EMAZTEGAIAREN
orrazkeran eta
makillajeen
ESPEZIALISTAK

NICE NICE gure dendan...
gauza berriak astero.

Den-dena 9'99 eurotan
Zamarra eta kazadorak
14'99 eurotan

lfar kale, 6 tel. 943 702024

RPS 189/09

KERaLa
www.estetikakerala.es
www.cosmeticadelbienestar.es

Urkizu, 11 solairuartera **943 53 05 25**

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak,
Ezkongaiendako Bono Bereziak...

615 705 772

COROCANOCRUZ

- PERSONAL SHOPPER
- ILEAPINTZAILEA ZURE ETXEAN
(ezkongai eta ekitaldietan
espezialista)
- IA BETIRAKO MANIKURA ETA
MAKILLAJEA (Monica: 617529356)

canocruz.coro@gmail.com

ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Rhôt Estilistak

www.facebook.com/estetikaibone.estetikaibone

ESTETIKA IBONE

EZKONTZARA BIKAIN IRITSI NAHI?

- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Garbiketa dieta (Silvana Huegun)

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

Aurpegi tratamenduak

- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)
- Mikrodermoabrasioa

MAKILLAJEAK
BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA

LASER DEPILAZIOA **30€**
Hanka osoak + Izterondoak: 90€
zona bakoitza

www.capiestetica.es

Profesionalek lagunduko dizute

Behin ezkontzea erabakita eta data zein izango den jakinda hasten dira askorendako benetako buruhaustek. Izan ere, gehienetan, nahiz eta eztei eguna ahalik eta xumeena egiteko asmoa izan, azkenean hasierako idea baino handiagoa izaten da egun hori. Bazkaria, gonbidapenak, janaria, argazkiak, estetika, ileak, jantziak, bidaia, loreak, autobusak... zerrenda egiten hasi eta amaigabea izaten da.

Bikoteak lasai hartu beharreko erabaki asko daude, gaur egun merkatu izuga-

ria sortu eta indartu da ezteiairen egunaren bueltan. Ohitura berriak sortu eta gailendu dira, jende guztia gustora egoteko asmoarekin, zortzeko moduko antolaketa lanak egiten dira. Baina kontuan izan beti egongo dela zuk laguntzeko prest dagoenik denda eta komertzio bakoitzean.

Bitxiak, loreak edo bidaiak aukeratzeko orduan bereziki izaten ditugu arazoak. Zergatik? Gaur egun horrelako bitxiak erosteko ohitura gutxiago dugulako, lore-ri buruz ere ezer gutxi dakigulako, gutxiago eliza, areto edo jangela bat apaintzeko dauden aukerei buruz. Zer esan bidaiei buruz; 'bizitzako' bidaia egiteko aukera paregabea izaten da bikote askorendako eta horretan ere gauza asko eduki behar izaten dira kontuan.

Merkatuak agintzen badu ere, dagoen eskaintza ezagutzeaz gain, norberak nahi duena izan behar da nagusi. Komertzioetan lagunduko dizute guzti horretan. Saltzeko daude, jakina, baina bezeroa pozik egotea nahi dute lehenengo eta behin eta laguntzea. Eta hori lortzeko



josu torrealday



josu torrealday

zer? denbora. Gauzak denboraz egin, joan lasai dendetara, hartuemon zuzena garrantzitsua da, saltzaileak ezagutu ditzala zure gustoko bitxi, kolore, lore edo bidaiak. Zeintzuk diren zure beldurak eta nahiak. Zuzeneko hartuemonak lasaitu egingo zaitu. Merkatuan dagoen guztia zuk ezagutzea ezinezkoa da, zuk esandakoaren arabera, lehenengo aukeraketa bat egingo du profesionalak eta hori oso lagungarri izango da. Horrela gauzak espero bezala, oso ondo, joango dira.

MARRODAN
BITXITEGIA / ERLOJUDENDA

T. Etxebarria, 24
Tel. 943 20 73 04

WWW.JOSUTORREALDAY.COM
c/ FERMIN KALBETON nº4 - 1º A3 EIBAR | 679950858 943530858

BIDAIA PERTSONALIZATUAK

**Gure gidariek
Prezio lehiakorak**

Gure produktu berezienak:
Venezuela, Costa Rica eta India

Azken aldian:
Estatu Batuak, Kubarekin nahastuta

Matienan gaude **94 465 75 77**
Eibartik 10 minutura (autopistan Abadiñoko irteera) **www.bagoaz.com**

Eibar FT-ren historiako ezker lateralaren bila

Aurreko astean, Kopako partidua zela-eta, halakorik egon ez bazen ere, aste honetan Eibar FT-k bere hamaiakako idealaren bila jarraituko du, oraingo honetan ezker aldeko lateralak aukeratzeko asmoz. Bost jokalariren artean hautatu beharko dute bazkideek eta akziodunek, betiko moduan euren botoa 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidalita. Aipatutako jokalaria Jesus M^o Castillo "Txitxia", Ontoria, Artutxa, Aranalde eta Aitor Arregi dira.

Tebasen bisita

Javier Tebas Foball Profesionaleko Ligaren presidentea Ipuruako instalazioetan izan zen astelehenean eta, Alex Aranzabal Eibar FT-ko presidentearekin emandako prentsaurrekoan, gure herriko taldearen jarduna gorai patuzuen, "Eibar modelo foball profesionalen



nagusitu behar dela" esanez. Bazkideen kopuruari baino garrantzi gehiago eman zion Tebasek klubaren kudeaketa eta egoera ekonomikoari.

Hurrengo partidua telebistan

Garitanoren mutilek domekan Mini-Estadin Bartzelona B-ren aurka jokatuko duten partidua TV3-k eskainiko du zuzenean, 17.00etatik aurrera. Eta, hurrengo jardunaldian, eibartarrek Zaragoza handia hartuko dute Ipuruan azaroaren 2an, 18.00etan hasiko den neurketan: partidua hori ETB-k eskainiko du.

Domeka goizean Errugbi Eguna Unben

Domekan Eibar Rugby Taldearen nesken taldeak denboraldi berria estreinatuko du Unben, goizeko 10.00etan, La Unicaren kontra jokatuko duen partiduekin; jarraian seniorren hitzordua

izango da, azken hauek Zarautz Rugby Taldea hartuko baitute 12.00etatik aurrera. Azken hauek aurreko asteburuan hasi zuten denboraldia Bilboko El Fangon, bertan Universitario Bilbao Rugbyri 5-42 irabaziz. Ibon Gantzarain entrentzaileak taldean konfiantza duela erakutsi du berriz ere eta, horrela, Falaganek eta Markel Laruskainek debutatu egin zuten maila horretan.

Domeka goizeko partidua biak amaituta, hiru garren denbora egingo dute Guridi tabernan: denbora hori jokoaren zati moduan ulertzen da, talde guztietako jokalaria batzeko modua.



Ruibalek galdu egin zuen luzapenean berriro

Ibilbide aldapatsua benetan Ruibal saskibalo taldea egiten diharduena aurtan berreskuratutako Gipuzkoako 1. mailan. Eta, aurreko bi porrotekin batera, azken bi jardunaldietan beste hainbeste porrot jasan dituzte, mingarriagoak izan daitezkeenak. Laugarren jardunaldian azken laurdenean zein luzapenean izandako abantailak bertan behera bota zituzten Ruibalekoek eta, azkenean, 54-62 galdu zuten Aluminios Alberdi Urretxukoarekin. Bihar Hernani hartuko dute Ipuruan.

3. mailako Katu Kalek ere ez du ondo hasi denboraldia, Mutrikun 45-43 galdu baitzuen lehenengo jardunaldian. Maila horretako 2. multzoan jokatzen duen taldeak atsedena izan du azken jardunaldian.



Urkuzuakoak denboraldiari agur

Aurreko urteetakoari jarraituz, denboraldiari agur esan diote Urkuza taldeko txirrindularizeek Dorletako Amarenganaino joan eta bertan lore-eskaintza eginez. Jarraian, anaitasunezko bazkaria egin zuten Eibarren.

berriak

HIRU-TXIRLO

Euskadiko XXIV. hiru-txirlo txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zen aurreko zapatuan Sorluzeko San Andres bolatokian eta, han izan ziren 63 bolarien artean, Asola-Berrikoek ez zuten egun ona izan. Juan Luis Rodriguez izan zen ordezkaririk onena eibartarren artean, bost txirlo botata. Aurrea hartu zioten, seirekin, San Migueleko Angel Ibarluzeak eta Iruzubietako Juan Txurrukak.

PILOTA

Domeka goizean (11.15etan hasita) hiru partidu jokatuko dira Ipurua kiroldegian. Hasteko, Deporreko pilota eskolako alebiren artekoa jokatuko da, jarraian Oier Albizurik Debako ordezkariei egingo dio aurre junbenil mailako partiduan eta, azkenik, nagusietan, Ruiz-Larrauri bikoteak Legazpikoa izango du aurrez-aurre.

MENDIA

Azaroaren 5, 7 eta 9an egingo den ordenagailuari aplikatutako GPS ikastarorako izena emateko epea zabaldu da. Ikastaro Andoainen egingo da, La Salle Berrozpe ikastetxean. www.gmf-fgm.org/lang/eusk/

Bihurri munduko marka berriaren bila azaroaren 2an

Ernesto Ezpelta "Bihurrik" erronka berri bati egingo dio aurre hurrengo asteko zapatuan. Bilboko La Casilla pabilioian izango du hitzordua Eibarko aizkolariak, esku bakarrarekin "aurretik moztutako hiru metro eta 10 zentimetroko diametroko dexente gora izango duen enborra" mozteko asmoz. "Lanarekin amaituko dudan ere zalantzak dizkiat" dio Bihurrik, "oso-oso luze joko baitu". Ekitaldia goizeko 10.00etan hasiko da eta munduko marka berria lortzeko ahaleginean jasotako dirua gaixotasun arraroak dituzten umeen alde izango da, "euren alde antolatutako jaialdi erraldoiaren barruan" izango baita Bihurriren erakustaldia.



Ernesto Ezpeleta Hodei semearekin: aizkora dute biek zaletasun.

Eibarko aizkolariak indartu ikusten du bere burua, "bai udan eta bai ondoren egindako erakustaldietan sasoiko aurkitu bainaiz". Azaroaren 2koa, dena dela, berezia da oso, erresistentzia asko eskatzen duena eta, horretarako ere, probatu behar: "Bizpahiru saio egin ditiak girotzen joateko". Lanarekin batera, baina, izango du Bihurrik gozatzeko unerik, domeka honetako esaterako: "Ezpeletan Piparraren Ohorezko Kofrdea izendatuko naute eta pozez hartzen da jendeak zure lana aintzat hartzea".



Burgoseko ziklo-kros proba biak Aitor Hernandezentzat

Medina de Pomarren zapatuan eta Villarcayon domekan: ziklo-kros proba bietan nagusitu zen Aitor Hernandez ermuarra. Burgosko Diputazioaren lasterketa biak bereganatu zuen Debabarreneko txirindular-ohiak, kasu bietan Aketza Peñari aurea hartuta, bigarrenen gainera azken unean egindako erasoaldiari esker. Asteburu honetan Karrantzan izango du hitzordua Espainiako txapelkunak.



Kalamuako judoek Andorra konkistatu zuten

Eta baita datorren urtean berriro bueltatzeko gonbidapena ere. Pere Caus pabilioian jokatutako Canilloko nazioarteko laugarren edizioan, Kalamua klubeko infantil eta kadete mailako judoek hartu zuten parte eta eibartarrek erakutsitako mailak atek zabaldu dizkie, Andorra-koak ez eze, Tordera eta Lloret de Mar-ekoak ere bai. Ka-

deteetan urrezko domina bi (Nekane Muguruza eta Julen Ramon) eta zilarrezko eta brontzezko bana (Eneko Loresek eta Iker Martinezek, hurrenez hurren) lortu bazituzten eibartarrek, infantiletan urrezko domina eskuratu zuten Iker Martinezek eta Javier Criadok eta brontzezkoa Asier Divassonek, beste postu onekin batera.

Areto-foballeko gazteenen partiduak bihar UNI-n

Infantil mailako Sukiak eta Debabarrenak hurrengo jardunaldiko partiduak jokatuko dituzte bihar Unibertsitate Laboralean: Sukiak Goierri hartuko du 10.30etan eta Debabarrenak Arizmendi Aitzorrotz 12.00etan. Aurreko zapatuan Sukiak berdindu egin zuen Eskoriatzarekin, bosna: Sergioki bi gol sartu zituen eta Juanek, Danelek eta Christianek bana.

Domekan, bestalde, Concepto Egile Debabarrenako talde nagusiak Zierbena hartuko du 12.30etan Elgoibarko Olaizaga kirolderdegian. Saillkapeneko 5. eta 6. postuetan daude talde biak, hamar punturekin berdinduta, eta Concepto Egilekoek aukera ona izango dute mendekua hartzeko (bizkaitarrek Elgoibarko taldea kanporatu zuten Kopan).




Infantil mailako Sukia taldea.

Asier Cuevas herri-lasterketa banaka eta taldeka jokatu da

Bi egun besterik ez dira gertzen gure herriko proba berri honetako lehenengo edizioa jokatzeko. Zapatuko proba hori 17.30etan hasiko da eta 7,3 kilometroko distantzia osatu beharko dute parte-hartzaileek (hori bai, gaztetxoentzako lasterketa ere jokatu da, ordu erdi lehenago hasita). Bestalde, banakako lasterketa junior, absoluto eta beterano-

en mailatan banatuko da eta taldekakoan lau parte-hartzaileentzako talde mistoak osatu beharko dira: banaka izena emanda gero, taldearen eta lauren izena jakinarazi beharko da atletismoa@deporeibar.com emailaz. Laukotea osatzen duten atletak 30 segundoko tartean helmugaratu beharko dira, euren denbora kontuan izatekotan.

Guzti horretarako izena eman beharko da aurretik www.kirolprobak.com helbidean. Epea bihar amaituko da eta 10 euro ordaindu beharko da parte hartzeko. Parte-hartzaileen kopuruari, bestalde, muga ipini zaio: 400 izango dira lasterketan gehienez jota. Dorsalak eta txipa zapatuan jaso beharko dira, 15.00etatik 17.00etara, Klub Deportiboan Sariei dagokienez, lehenengo hiru emakumezkoek eta gizonzkoek jasoko dituzte, junior eta beterano mailetakoko on-



Jesus Telleria eta Periko Iriondo Donostiako I. Maratoian.



1980. urtean jokatuak herri-lasterketa.

nekin batera. Talde onenak lau taldekideentzako afaria irabaziko du. Izango dira sari gehiago ere, produktu ba-

tzuen zozketa tarteko, eta parte-hartzaile guztiak Kiroldegiko instalazioak izango dituzte eskura dutxa hartzeko.



Juan Gisasola kaletik Untzagara heltzen. Iñigo Unanue tartean.



Eskubaloiko 14 taldeetako jokalariek argazkia. LEIRE ITURBE

Eibar Eskubaloiak talde guztiak aurkeztu zituen

Kadete eta infantil mailetakoko launa talde, jubeniletakoko hiru eta alebinetako bi aurkeztu ziren zapatuan Untzagan senior mailako taldearekin batera. Aipatutako hamalau taldeetatik, lau neskenak dira. Giro berezia sortu zuten hainbeste eskubaloilarik Eibar eskubaloiauren aurkezpenean. Asteburuko emaitzei begira, bestalde, talde nagusiak 28-26 irabazi zion sailkapenean atzean zuten Tolosari eta goi-goian jarraitzen du. Asteburu honetan Corrales de Buelnara joango da Fernando Fernandez taldea: asturiarrak, 4.ak izateaz gain, aurkari gogorak izango dira

LAN ESKAINTZA

- Eibarko enpresa batek jendaurre eta biltegirako pertsona bat behar du, arduratsua eta gogotsua.
- Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eskatzen dira

Interesatuak bidali curriculum-a helbide honetara:
29 Posta kutxatila 20.600 EIBAR

MGS Seguros

seguros

PATXIFOR aseguruak

943 20 64 89 - EIBAR - 655 045 801

170 perretxiko mota ikusgai

Asteburuan Klub Deportiboko Mendi Taldeak antolatuta XV. Jardunaldi Mikologikoak egin ziren gurean. Zapatuan autobus bi bete zituzten antolatzaileek goizetik perretxikotara joateko izena eman zuten 8-15 urte bitarteko ikasleekin eta gurasoekin. Talde bitan, batzuk Marieta ingurura eta beste batzuk Olaetara joan ziren eta, azken egunotan euri gutxi egin duela-eta, beste batzuetan baino perretxiko gutxiago egon arren, ez ziren esku hutsik bueltatu:

Aranzadi Zientzia Elkartekok lagunduta batutako guztiak sailkatu eta identifikatu eta gero 170 espezie ezberdin prestatu zituzten domeka goizeko erakusketan ikusgai ipintzeko. Bitxikeriaren bat edo beste aurkitu zuten, gainera, ia gauera arte luzatu zen sailkapena amaituta espezie bi katalogatu barik geratu ziren-eta. Betiko lez, perretxiko erakusketarako beharrez jardun zuten ikasleek lana saritu zuten, hainbat sari banatuta.



Urtero legez, perretxiko erakusketarako beharrez jardun zuten ikasleendako sariak izan ziren. LEIRE ITURBE



Goruntz Burgosen abesten

Goruntz abesbatza Burgosen egon da aurreko asteburuan, Domund Egunaren harira hango katedraleko Santa Tecla kaperan ospatutako mezan abesten. Horrelakoetan eskaintzen duten ohiko errepertorio sakroari "Agur Jaunak" abestia gehitu zioten eibartarrek eta, kontatu digutenez, "mezetara joandako 300 lagunek, abestia entzun eta gero hunkituta, txalo ugari egin zuten". Goruntzekoek Eibarko San Andres elizari buruzko liburua oparitu zioten Ildonfonso Asenjo Burgoseko Artzapezpikutzako idazkariari eta, kontzertua amaituta, katedrala eta inguruak bisitatzeko aukera izan zuten



40 lagun joan ziren Uxuera Kulturekin

Arrate Kultur Elkarteak antolatuta, aurreko zapatuan 40 bat lagun joan ziren Uxuera bisitan. Txangoan parte hartzera animatu zirenak, besteak beste, Uxueko tokirik esanguratsuenak ezagutzeko aukera izan zuten, han egindako bisita gidatuari esker. Bazkaria, berriz, San Martin de Unxen egin zuten.

Musika Bandaren kontzertua

Domekan kontzertua emango du Cielito Musika Bandak Coliseoan, 12.30etan, Iñaki Orbegozok zuzenduta. Kontzerturako egitaraua honako abestiek osatzen dute: "A los Toros" (pasodoblea, E. de Egia), "El Bateo" (zarzuela, F. Chueca), "Xylophonia" (Ragtime, J. Green) Pablo Zubiaurre xilofono bakarlariarekin, "Montenido" (J. Chattaway) eta "Deep Purple Medley" (bilduma, T. Sahashiren konponketekin). Eguraldia lagunduz gero, bestalde, Bandakoek kalejira egiteko asmoa dute (11.15etan Coliseotik hasita).



Iñaki Orbegozok zuzenduko du kontzertua.



Txokolate-dastaketa Illunabarrian

Aste honetan, martitzenean Tolosako Rafa Gorrotxategi gozoglea izan zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak, txokolateari buruzko azalpen interesgarriak ematen eta dastaketa egiten, Illunabarrian programaren barruan. Hogeita lagunetik gora batu ziren saioan eta denak poz-pozik irten ziren, txokolatearen inguruan gauza berri eta interesgarriak ikasita eta, nola ez, Tolosatik ekarritakoak probatuta.

La Machina Teatroren antzezlan

Kantabriako La Machina Teatro konpainiak hilaren 31n 20.30etan "En alta mar" antzezlan taularatuko du Coliseoan (sarrerak 8 eurotan salgai leihatilan eta Kutxabanken). Francisco Valcarcek zuzenduta, taula gainean Patricia Crecas, Fernando Madrazo, Rita Cofiño eta Luis Oyarbide aktoreek jardungo dute Slawomir Mrozek-ek idatzitako istorioa kontatzen. "Absurdoaren antzerkian" girtutako antzezlanean ironia da nagusi eta protagonistak ozeano erdian galdutako hi-



ru lagun (andrazko bi eta gizonezko bat) dira. Egoerak behartuta, erabaki gogorak hartu beharko dituzte eta, besteak beste, boterea es-

kuratzeko borrokak, jerarkien antolaketa, aberastasunaren banaketa eta klase politikoa moduko gaiak aztertuko dituzte.

Mendebaldeko Sahara liburutegian

Tolerantzia eta kultur-integrazioa sustatzeko helburuari jarraitzen dion Liburutegiak Topaleku programaren barruan, azaroan Mendebaldeko Sahara ardatz izango duten hainbat ekimen antolatu dituzte elkarlanean Juan San Martin Liburutegiak eta Eibar-Sahara elkarteak. Hil osoan Sahara

ezagutzera emateko materialak biltzen duen gida bibliografikoa eta interesgunea eskuragarri ipiniko dituzte eta, horiekin batera, Jose Luis Irigoienek argazki erakusketa ikusgai egongo da liburutegian bertan. Horrez gain, azaroaren 4an, 18.30etan Alvaro Longoriak idatzi eta zuzendutako "Hi-

jos de las nubes" dokumentalaren inguruko bideo-foruma egingo da Portaleko areto nagusian, Naila Babak dinamizatuta.

Azaroak 13rako Mendebaldeko Sahararen egoerari eta Eibar-Sahara elkarteari buruzko hitzaldia eta bideo-proiektzioa antolatu dituzte (19.00etan liburutegian). Azaroak 20an sukaldaritza tailerra egingo dute (18.00etan Portalean) eta parte hartu nahi dutenek liburutegian izena eman beharko dute, plaza kopurua mugatua da-eta. Eta azaroak 22an, 18.00etan Eneritz Artetxek "Saharako istorioak" izenburuko ipuin-kontalari saioa eskainiko du umeen liburutegian, 18.00etatik aurrera.




Azaroan hainbat jarduerarekin emango dute ezagutzera Sahara.

Norvegiak Portalea beteko du bihar

Bihar barixakua Norvegia ardatz duten hainbat jarduerari hartuko ditu Portaleak, herrialde horri eskainitako jardunaldien testuinguruan: 18.00etan erakusketa aretoan argazkilaritzari buruzko mahai-ingurua hasiko da eta, jarraian, 19.00etan Trygve Indrelied argazkilaria "Retrato de la mujer noruega" erakusketaren inaugurazioa

egin dute. 22 argazki osatutako bilduma azaroaren 10era arte egingo da ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Eta egitarauari agur esateko, 19.30etatik aurrera The Launderettes taldekoak "Getaway" disko berria aurkeztuko dute zuzeneko emanaldian, areto nagusian egingo den kontzertuan.



laburrak

SAN ANDRES KARTELA

Aurtengo San Andres jaiak iragartzeko kartela aukeratu du epaimahaia: Malen Maiora Unzuetak irabazi du lehiaketa "Dena prest San Andres azokarako" kartelarekin. 11 eta 14 urte bitartekoen mailan Leire Goenaga Conde izan da saritua, "Arratoia" kartelarekin, eta 10 urterako artekoen artean, berriz, Salma Losada Fuentes, "Ilarra" kartelarekin.



IKA MIZKA EIBARREN

Aurpegi ezagunak eta gazteak mahai baten bueltan euskeraz jarduteko biltzen dituen "Ika Mizka. Eta hik, nola bizi dunk euskara?" egitasmoa zirkuito moduan planteatu dute oraingoan eta azaroaren 14an Eibarren (UPV/EHUren Industria Ingenieritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan) egingo da saioetako bat. Parte hartzeko interesa duten gazteek www.gaztezulo.com webgunean izena eman dezakete.

GAZTELEKUA

Indianokua gaztelekuak astebururako antolatutako jarduerak hauek dira: Disparate Eguna (barixakuan), Play/Wii (zapatua) eta beldurrezko filmaren proiektzioa (domeka).

I. Ojanguren sari nagusia Malagara

Aurreko zapatuan bildu zen Indalezio Ojanguren XXVI. Argazki Lehiaketako epaimahaia (Cesar Alberto Lera Estevez, Jose Antonio Cabezudo Urrutia eta Juan Bosco Mercadal Moll) Portalean, edizio honetako irabazleak aukeratzeko. Aho batez hala erabakita, Argazki Bilduma Onenari Ohorezko Saria Jose Ramon San Jose Ruigomez



(Malaga) argazkilaria "Señales de vida"-k eraman du. Urtero lez, sari nagusiarekin batera beste batzuk banatu dituzte: Indalezio Ojanguren Sari bana eskuratu dute Asier Garagarza Sanchezek, Luis Irisarri Tejadak, Jesus Pastor Sanzak eta Javier P. Fernandez Ferrerasesk; Euskal Herri mailako sarituak Manu Berreiro Rodriguez, Miguel Cabezas Centeno eta Agustin Busselo Ortega izan dira; herri mailan, berriz, Oscar Baglietto Arano, Eigner Rodriguez Ponce eta Juan Antonio Palacios saritu dituzte; eta 8 eta 16 urte

bitarteko lehiakideen artean, Iker Perez Martin 10 urteko eibartarrari saria ematea erabaki dute.

Aurtengo edizioan 72 parte-hartzaile lehiatu dira eta euretako batzuen lanak irabazleekin batera ikusteko aukera izango da gaur bertan Portalean zabaldu duten erakusketan. Inaugurazioan bertan banatuko dizkiete sariak irabazleei. Portaleko 2. solairuan azaroaren 17ra ikusgai egongo den erakusketa martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara bisitatu daiteke.

On line irakaskuntzara jauzia UEUn

Atzo eguerdian Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 2013/2014 ikasturtearen irekiera ekitaldia egin zuen atzo eguerdian Markeskua jauregian eta bertan izan ziren, besteak beste, Karmele Artetxe UEUko zuzendaria, Francisco Javier Alonso Eusko Jaurlaritzako unibertsitateetako zuzendariak, Zigor Etxeburua Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria, Ana de Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta

M^a Jose Telleria Eibarko alkate-ordeak. Ekitaldian, udazkeneko eskaintza aurkeztean aurreratu zutenaren bidetik, UEUk on line irakaskuntzan eman nahi duen jauziaren nondik norakoak azaldu zituzten. Iratxe Esna-

ola Deustuko irakasleak eta UEUko zuzendaritzako kideak eman zuten "Ikasteko Ingurune Birtualak: erronka teknologikotik erronka pedagogikora" izenburuko hitzaldian horietako batzuk aipatu zituen. On line eskaintza udazkeneko ikastaroetako batzuetan aukeratu daiteke jada ("Moodle 2.3-ren oinarriko erabilera" eta "Ubuntu eta Software libre: sarrera"). Informazio osoa www.ueu.org helbidean eskuratu daiteke.



Eibarko raketistak Gernikako Museoa

Gernikako Euskal Herria Museoa martitzen zabaldu zuen "Emakumea eta euskal pelota" erakusketan, besteak beste, Eibarko raketistek tartea izango dute. Erakusketan bost ataletan banatu dute (Sakea, Tanto kopurua; Kantxa; Kontrakantxa eta Hemen eta Orain) eta bigarrenen ekarri dituzte gogora Eugenia Iriondo "Eibarresa" eta frontoietan ibilitako beste batzuk. Ego Ibarra www.egoibarra.com webgunean horietako batzuen berri eman du. 2014ko apirilaren 20ra arte zabalik egongo den erakusketari laguntzen, bestalde, emakumezkoen pelota partidak, hitzaldiak, tailerrak eta filmen proiektzioak ere izango dira.



Zapatuan abiatuko da Musikaldia

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren harira antolatutako Eibarko XXI. Musikaldia zapatuan abiatuko da, 20.30etan Txekiako Carmina Children's Choir haur abesbatzaren kontzertuarekin. Domekan Euskadiko KUP Taldeak jardungo du, astelehenean Alemaniako Daarler Vocal Consort abesbatzaren txanda izango da eta azaroaren 1ean (barixakua) Madrilgo Erkidegoko haurrek emango duten kontzertuarekin agurtuko dute aurtengo egitaraua. Emanaldi guztiak Coliseo antzokian izango dira, 20.30etan eta sarrerak 3 eurotan egongo dira salgai, leihatilan eta Kutxabanken.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARTIN Baskaran Velasco, hillaren 30ian urtia beteko dozu-eta. Amama Mertxeren partez.



Zorionak, MIKEL, bixar bederlatzi urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.




Zorionak, EDURNE Telleria Garcia, 28xan urtia beteko dozu-eta. Patxo haundi bat aitxitxa, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, KEPA Ortega Zubizarreta, gaur lau urte egiten dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, ARRATE, atzo zazpi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, OINATZ, zapatuan urtebete egingo dozu-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Eider eta Lukenen partez.



Zorionak, NEREA Aizpuru Boyero, etzi hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, LEIRE, gaur bi urte betetzen dozuzelako. Famelix guztiaren eta, batez be, Naiaren partez.

hildakoak

- Jesusa Vicuña Enbeita. 90 urte. 2013-X-16.
- Ines Urresti Diaz. 96 urte. 2013-X-17.
- Esther Onaindia Natxiondo. 62 urte. 2013-X-18.
- Servando Alvarez Lopez. 82 urte. 2013-X-21.
- Jesus Aiestaran Zurutuza. 93 urte. 2013-X-21.
- M^a Nieves Ruiz Diez. 66 urte. 2013-X-22.

jaiotakoak

- Aner Moreno Gomez-Simon. 2013-X-2.
- Beñat Merino Valmaseda. 2013-X-6.
- Inar Perez Gomez. 2013-X-9.



Zorionak, CARMEN eta IGNACIO, hillaren 31n 60 urte beteko dozuez-eta ezkondu ziñaziela. Egun haundixa izango da danontzat. Famelixako guztien partez.

5	3	8						7
	4				6	9		
	6				7			
8				9				4
			3		4			
	5			7				1
			1					2
		9	2				1	
2						8	5	6

SUDOKUA

3	5	4	8	7	6	9	2	1
1	7	9	3	2	5	6	8	4
8	2	6	4	1	9	7	3	5
5	8	7	2	6	4	1	9	3
9	1	2	5	8	3	4	7	6
6	4	3	7	9	1	2	5	8
2	3	1	9	4	8	5	6	7
4	9	5	6	3	7	8	1	2
7	6	8	1	5	2	3	4	9

AURREKOAREN EMATZA

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

26an: 17.00, 19.45, 22.30
27an: 17.00, 20.00
28an: 20.30

"La mejor oferta"

Zuzendaria: Gius. Tornatore



(2 ARETOAN)

26an: 17.00, 19.45, 22.30
27an: 17.00, 20.00
28an: 20.30

"El último concierto"

Zuzendaria: Yaron Zilberman



(ANTZOKIAN)

26an: 17.00
27an: 17.00

"Justin y la espada del valor"

Zuzendaria: Manuel Sicilia



EGUENA 24

TAILERRA

18.30. Zurrumuruak argitzeko "Zurrumuruak kudeatzeko komunikazio eta emozio estrategiak", Raquel Moreno. Portalean.

KONTZERTUA

19.00. Moby Dick taldea. Karrika tabernan.

IKASTEN

19.30. Kaleetan Kantuz. Entsegua. S. Andres elizan.

MONOLOGOA

22.30. Monologo-saioa. Carola Maldonado. Laurel&Hardy tabernan.

BARIXAKUA 25

MAHAI-INGURUA

18.00. Argazkilaritzaren inguruko mahai-ingurua.
19.00. "Retratos de la mujer Noruega" Trygve Indrelid-en erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

KONTZERTUA

19.30. The Launderettes taldearen. Portalean.

ZAPATUA 26

EIBART AZOKA

11.00/21.00. Eibart Udazken Azoka. Artisautza postuak eta ikuskizun eta jarduerak. Untzagan.

HERRI-LASTERKETA

17.00. I. Asier Cuevas herri lasterketa (helduen irteera 17.30etan). Klub Deportiboaren parean.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. "Maskara beldurgarriak" tailerra. El Corte Inglesean.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. "Motxila bete ipuin" ikuskizuna. Iraitz Lizarraga. Umeen liburutegian.

KONTZERTUA

20.30. Carmina Children's Choir (Txekia) abesbatzaren kontzertua. Coliseoan.

MUSIKA SAIOA

23.00. Kogollo Party Krew. Karrika tabernan.

SOUL ROOM

23.55. Get Down To The Soul Room DJ saioa, Funk Off elkarte. Koskor-en.

KONTZERTUA

00.00. "Gabba Gabba Hey" (Tribute to Ramones) taldea. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 27

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandaren. Coliseoan.

ODOL-EMAILEAK

13.15. Deba arrokoei harrera eta agurra.
13.30. Dominen banaketa.
14.30. Bazkaria. Unzaga Plaza hotolean.

KONTZERTUA

20.30. KUP Taldea (Euskadi) abesbatza. Coliseoa.

ASTELEHENA 28

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia-topaketak). Beheko Tokian.

TAILERRA

18.30. "Zer egin dezakegu Eibarren zurrumurruek aurka?" (SOS Arrazakeria). Portalean.

KONTZERTUA

20.30. Daarler Vocal Consort (Alemania) abesbatza. Coliseoan.

MARTITZENA 29

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Etxe barruko segurtasuna", DYA. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17.00 eta 8.30. Joskintza tailerra. Portalean.

BATZARRA

18.30. Autobus zerbitzua hobetzeko bilera irekia, Diputazioak antolatuta. Portalean.

EGUAZTENA 30

IKASTEN

10.11. Mendi-ibilaldia: Amorebieta-Etxano. Trenaren irteera Estaziotik (10.12etan Ardantzatik).

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 31

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "La costa swahili de Tanzania y Kenia". Armeria Eskolan.

HALLOWEEN

17.30. Umeendako Halloween jaia, koko-jantzi lehiaketa. El Corte Ingles.

ODOL-EMAILEAK

18.30. Odola ateratzeko saioa. Anbulategian.

AZKEN PINTXO-POTEA

19.00. Azken pintxo-potea. Karrika tabernan.

IKASTEN

19.30. Kaleetan Kantuz. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKIA

20.30. "En alta mar". La Machina konpainia. 8 euro. Coliseoan.

BARIXAKUA 1

KONTZERTUA

20.30. Pequeños de la Jorcam (Madril) abesbatza. 3 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 2

AZKEN GUDA DANTZA

19.00. Azken guda dantza. Karrika tabernan.

DOMEKA 3

DANTZA

20.30. Jubilatuentzat. Untzaga jubilatutik etxean.

ASTELEHENA 4

IKASTEN

16.00. Sendabelarren foroa: ipuruaren erabilera. Portalean.

MENDEBALDEKO SAHARA

18.30. Alvaro Longoriaren "Hijos de las nubes" dokumentala eta bideo-foruma, Naila Babak dinamizatuta. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Aitziber Etxeberriaren "Tango urdina" liburuaren inguruko solasaldia. Liburutegian.

MARTITZENA 5

IKASTEN

10.00. "El artista Leonardo Da Vinci" hitzaldia. Urko Barros. Armeria Eskolan.

EGUAZTENA 6

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia. Untzaga jubilatutik etxean.

BATZARRA

19.00. "Gure esku dago" ekimenaren inguruan. Portalean.

EKINGUNE TOPAKETA

19.00. Enpresen arteko harremanak sustatzeko Networking-a. Ekingunek antolatuta. Erdi-Bana sozietatean (Urkizu, 1 - 6. eskuma).

EGUENA 7

IKASTEN

10.00. "Curiosidades en el Archivo Municipal" hitzaldia, Yolanda Ruiz artxibo-arduradunarekin. Armeria Eskolan.

MONOLOGOA

22.30. Monologo-saioa, Maribel Salasen eskutik. Laurel&Hardy tabernan.

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

ORDU ALDAKETA

ASTEBURUKO zapatutik domekarako (urriak 27) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak. Neguko ordutegi honek martxoaren 30era arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.

erakusketak

- ✓ **Urriaren 31ra arte**
JOSE MIGUEL SAN JOSEREN argazkiak. *El Ambigú kafetegian.*
MIKOLOGIARI buruzko argazkiak. *Klub Deportiboan.*
EIBARKO ARGAZKI RALLYKO lanen erakusketa (2. zatia). *Portalea tabernan.*
- ✓ **Azaroaren 3ra arte**
JUAN LARREATEGIREN Eibarko aintzinako argazkiak. *Untzaga jubilatutuean.*
- ✓ **Azaroaren 10era arte**
TRYGVE INDRELID argazkilariaren "Retratos de la mujer noruega" erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Azaroaren 17ra arte**
INDALEZIO OJANGUREN XXVI. Argazki Lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbat argazkiren erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Azaroaren 30era arte**
SAHARARI buruzko gida bibliografikoa eta **JOSE LUIS IRIGOIENEN** argazki erakusketa. *Juan San Martin liburutegian.*

lehiaketak

- ✓ **Azaroaren 8ra arte**
XIX. SAN ANDRES BERTSO-PAPER LEHIAKETA. *Lanak aurkeztea eta informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11)*

farmaziak

- ✓ **barixakua 25**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **zapatua 26**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **domeka 27**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **astelehena 28**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 29**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguztena 30**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguna 31**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **barixakua 1**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapatua 2**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **domeka 3**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Aranburu** (*Gipuzkoa etor., 46*)
- ✓ **astelehena 4**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Alberdi** (*Zubiaurre, 9*)
- ✓ **martitzena 5**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Cortina** (*Zubiaurre, 29*)
- ✓ **eguztena 6**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ugarte** (*Sta. Zezilia, z/g*)
- ✓ **eguna 7**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ibarrondo** (*Zeharkalea, 2*)
- ✓ **barixakua 8**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai San Kristobal kalean. 3 logela, sukaldea eta komuna. 76 m². Tel. 626-806839.
- Pisia salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta trasteroa. 130 m². Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Pisia salgai Polonia Etxebarria kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta aukera ona. 90.000 euro. Tel. 620-099120.

1.2. Errentan

- Pisia behar da Eibarren. 2-3 logeakoa. Tel. 652-532589.
- Pisia alokagai Legarre-Gain kalean. 3 logela, egongela eta komuna. Jantzita. Eguzkitsua. Tel. 678-956839.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruetan. Tel. 628-872295.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Bigarren eskuko Nissan Cabstar kamioneta (kaxa irekikoa) salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 605-738476.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Juan Gisasola kalean (epaitegia). 21 m². Tel. 657-779650.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Asua-errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 616-959625.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Fisioterapian eta Terapia Okupazionalen lizentziatua lanerako prest. Esperientzia. Euskara ikasten dihardut. Tel. 610-949526.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 625-895460.
- Unibertsitate ikasketak egindako neska eskaintzen da arratsaldez lan egiteko. Tel. 646-369330.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko... Tel. 603-666671.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- 45 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko Eibar, Elgeta, Bergara eta Arrasate inguruan. Tel. 606-502567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Masajista titularekin. Esperientzia. Tel. 632-430198.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 608-866535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 671-139176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-723264.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 660-073781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 689-798284.
- Jostuna eskaintzen da erropa edo ehunak konpondu edo egiteko. Merke. Esperientzia. Tel. 943-201180.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanerarako. Tel. 659-101631.
- Mutil euskalduna eskaintzen da edozein lanerarako. Tel. 688-819010.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 674-713262.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta pintore moduan. Tel. 647-898016.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Orduka. Tel. 602-022174.
- Eibarko neska eskaintzen da etxeko garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 656-760716.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 632-220461.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-064608.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 639-962219.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta laguntzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska eskaintzen da etxeko garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-302237.
- Neska eskaintzen da etxeko garbitzeko, garbiketak egiteko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-099453.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garaje, taberna edo igerilekuetan garbiketa/mantenimendu lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.

4.2. Langile bila

- Kamareroa behar da. Esperientziarekin. Tel. 615-750942 eta 943-750030.
- Estetizienek eta ileapaintzaileak behar dira, ordu solteetan eta gertaera berezietan lan egiteko. Bidali curriculum-a: makeupgaur@gmail.com
- Garbitzailea behar da asteburuetarako Arrateko jatetxe batean. Euskalduna eta autoarekin. Bidali curriculum-a Eibarko 46 posta kutxatilara.
- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: davidtubolab@gmail.com
- Pertsona arduratsua behar da raskak, luzapenak eta postizoak egiteko Eibarko ilepaindegi batean. Giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea behar da LH1-eko ikasle batentzat. Astelehen eta eguaztenetan, 17.00etatik 18.00etara. Tel. 661-377537.

5.2. Eskaintzak

- Ingeleseko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketa ofizialeterako prestakuntza. Tel. 652-763264.
- Arte Ederretan lizentziatutako neska euskaldunak marrazketa eta margolaritza klaseak ematen ditu. Baita 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu-klaseak ere. Tel. 696-747532.
- Mutil euskaldun tituludunak ingelesezko partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Merke. Tel. 690-025579.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Sofa poli-piel salgai, plaza bikoa. Oin-azpiko etzangariarekin. Oso merke. Tel. 943-043008.
- 15 hilabeteko ume batendako pase-orako aulkitxo erosi edo hartuko nuke. Tel. 685-755526.- Aspes NA 383CS garbigailua salgai. Goiko karga, 5 kg. eta 800 r.p.m. Erabili gabe. 80 euro. Tel. 652-730323.
- Bugaboo markako aukliarendako patinetea erosi nuke. Tel. 666-769414.
- Zuhaitz itxurako zintzilikario dekoratiboa salgai. Prezioa adosteko. Tel. 660-840246.
- Idazmahaia salgai. Poliplas silla, mahai-gaineko lanpara eta osagarriekin. Erabili gabe. Merke. Tel. 943-120308.

6.4. Bestelakoak

- Taxi-lizentzia salgai. Ibilgailu eta bezero-karterarekin. Atenditzeko modurik ez izateagatik. Tel. 630-884181.

ENTZUMEN ZENTRO BERRIA EIBARREN



**Anton
Martinena**
GOI TEKNIKARI
AUDIO-PROTESISTA

AUDIOLOGIA PROFESIONALA

PERTSONETAN INSPIRATUTAKO ZERBITZUAK

Audiocentro-etan ez dugu bezeroekin tratatzen: pertsoneri eskaintzen diegu zerbitzua. Horregatik, gure zerbitzuak zure beharretan inspiratuta daude. Zure ongizaterako abantaila-multzo zabala.

IKERKETA AUDIOLOGIKO PROFESIONALAK

- Azterketa **otoskopikoarekin**, entzunbidean eta tinpano-mintzean egon daitezkeen arazoak antzematen ditugu.
- **Miaketa audiometrikoek** zure premia audiologikoak zehazten dituzte, entzumeneko maila minimoak eta hipoakusia-motak aztertuz.
- **Ahozko audiometriaren** bitartez, ahozko lengoia eskuratzeko duzun gaitasuna eta hitzaren pertzepzio-ataria zehaztu ahal izango ditugu.
- **Tinpanometriarekin** erreflexu estapediala, eta tinpano-mintzak eta erdiko belarriaren egoera aztertuko ditugu.

AUDIFONOAK

SOLUZIO IKUSEZINAK SENTSAZIO HANDIENTZAKO

Aprobetxa itzazu zure zentzumenak erosotasun handiarekin. Teknologia digital berriari esker, egokitzapen zehatz eta trararik gabeko audifonoak izango dituzu. Audifono bat dago entzumen-galera maila bakoitzerako. Audiocentro-etan zure beharrak aztertuko ditugu soluzio pertsonala eman ahal izateko.



Intraurikularra

Retroaurikularra

Intrakanalak

Lotune sakoneko audifonoa


ENTZUMEN-BABESLEAK

BABESTU ZURE ZENTZUMENAK

AUDIOCENTROren ABANTAILAK

- **Aldizkako entzumen-kontrola.** Bisita gaitzazu gutxienez urtean behin zure entzumen-osasuna ebaluatzeko.
- **Zure neurrira egindako finantzazioa.** Audifonoak eta gailuak epe erosoetan eta interesik gabe ordain ditzakezu.
- Higienea ezinbestekoa da belarrientzat. Horregatik, **urtean birritan garbituko dizkizugu moldeak, doan.**
- **Bost urtera arteko garantia** duzu, eta **puntako etxeekin** egiten dugu lan.
- **Lehen bi urteetan pilak doan** izango dituzu, eta gainera, gure zentro guztietan jasotzen ditugu pilak.

Julian Etxeberria, 2
Tel. 943 202 699




ZARATATIK BABESTEKO
TAPOIAK

URETARAKO
TAPOIAK





MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA



**250 LAGUNENDAKO
JANGELA**



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



Ozaeta Jauregia
Tel. 943 76 10 55
Faxa: 943 76 20 29
www.restaurantelasa.es
BERGARA

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAk
ospatzeko toki bikain batean*

